

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Ane Alonso, Amara Beraza, Nagore Campos, Naroa Lambarri

Gure enpresaren izena Elektrolinera AN da, eta kotxe elektrikoek arazoak konpontzeko helburua daukagu. Horretarako, auto mota hauetako kargetarako baliabide berri bat aurkitu dugu.



Gasolina bidez funtzionatzen duten autoek gehiegi kutsatzen dute gure ingurunea. Testuinguruan jartzeko, 100 g/km CO₂ kontsumitzen duen eta 250 km-ko abiaduran zirkulatzerako auto batek 25 tona gas igorriko ditu atmosferara. Igorritako CO₂-a osasunarentzat zuzenean negatiboa ez den arren, gure planetako berotegi-efektuari eragiten dio. Arazo horrek eragina izango du gure hirietan arnasten dugun airearen kalitatean. Hori dela eta, auto elektrikoek erabilerak gora egin du azken urteotan, jende asko kontzientziatu baita arazo horretaz, eta Energiaren Nazioarteko Agentziak (IEA) egindako ikerketaren bidez ikus dezakegu. Ikerketa horretan azaltzen da auto elektrikoaren salmenta 6,6 milioi unitatera iritsi zela 2021ean maila globalean, 2019an baino hiru aldiz gehiago.

Auto elektrikoek erabilerak gora egin duen arren, azpimarratu behar dugu Estatuan eta mundu osoan ez daukagula kotxe elektrikoek bateriak punturik autoa kargatzeko. Gainera, elektrizitatearen prezioak gora egin du, eta horrek inbertsio handiagoa eskatzen du karga-puntu berriak txertatzeko orduan. Horregatik, karga-idea bat aukeratu dugu: karga-punturik ez izatea. Aipatu dugun irtenbide hori haririk gabeko oinarri inalambriko baten txertaketa da, bateriak portatil gisa eraman dezakeguna edonora. Beraz, ez ditugu karga-punturik behar izango, eta nahi dugun lekura eraman genezake.

Gainera, kotxe elektrikoek desabantaila bat da bidai luzeegiak ezin dituztela egin. Izan ere, orokorrean kotxe elektriko batek %100 kargaturik dagoenean, 450km baino ez ditu egiten, eta ondorioz, arazo bat izan daiteke bidai luzeentzako. Horrez gain, kargatzeko momentuan denbora luzea ematen du kargan, eta gure proiektua karga inalambrikoa izateaz gain, karga azkarra izango da.

Ondorioz, gure proiektuak gaur egungo kotxe elektrikoek arazoak konponduko ditu: karga inalambrikoak eta denbora tarte txikian karga handia izango duena.